



den autoaren erabilera murrizteaz gain, guztion osasunaren eta espazio publikoaren gozamenaren alde egin nahi izan dute.

Kontutan izan beharra dago, gainera, zonalde honetan Plazaolako Natur Bidea aurkitzen dela, bizikletaren erabilerarako baldintza ezin hobeak batzen dituen plataforma: zolatze egokia, aldapa leunak eta biztanleriaren zentro nagusien bateratzea. Gainera, bere balioa handitzen duten eta bere ibilbideak aberasten dituzten paisaia erakargarriak ere erakusten dizkigu.

Guzti honek mugikortasun jasangarria, aurrezpena eta zonaldeko eraginkortasun energetikoa sustatzea ahalbidetzen du, baita aisialdi edo asteburueta desplazamenduetan ere. Gainera, bere erabilera oinezkoentzat eta motorrik gabeko ibilgailuentzat mugatuta egotean, bizikleta erabiltzen hasteko eta biztanleri zentro nagusien artean ibiltzeko azpiegitura ezin hobea bihurtzen da.

Ekarritako 30 bizikletak zoru konpaktuetan erabiltzeko prestatuta daude, hala nola, asfaltoa edo zementua, edo lur harroetan ibiltzeko ere, Natur Bidean erabilitako zagorrean edo bide partzelarioetako lurretan, esaterako; baina ez dira erabilgarriak kirol praktika edo mendiko ibilbideetarako.

Zerbitzua asteko egun guztietan eskaintzen da eta erabilgarritasuna bermatzeko zerbitzuaz disfrutatzen 4 orduko denbora maximoa dago. Ordu kopuru maximo hori gaintzen duen pertsonak 30€ko zigorra izateaz gain, hilabete batez ezin izango du zerbitzua erabili

## **Plazaola(n) Bizi tailerrak**

Zerbitzuaren erabiltzaile izango diren bizilagunen artean ezagutzera emateko, Plazaolako Partzuergo Turistikoak tailer batzuk antolatu zituen joan den asteburuan.

Lehenengoa, Urriak 1ean, ostiralean, izan zen, Leitzako Herriko Plazan, arratsaldeko 17.30etan. Horretara 100 pertsona baino gehiago gerturatu ziren Oraintxe enpresak emandako Bide Hezkuntza tailer batean parte hartzera. Proiektio bat ikusi eta hitzaldi bat entzun ondoren, bertaratu ziren guztiak euren bizikletetara igo eta herritik paseo bat eman zuten, bide hezkuntzako tailerrean ikasitako guztia praktikan jarri. Beranduago, plazara itzultzean, freskagarri batzuk eta txistorra hartzeko aukera izan zuten.

Jardunaldi berdina disfrutatu ahal izan zuten Lekunberriko biztanleek larunbat goizean, Urriak 2, eta Irurtzungoak larunbat arratsaldean.

## Pedalkadak jasangarritasunerantz



Plazaola(n) Bizi zerbitzu berriaren xede nagusia garapen jasangarria lortzea eta mugikortasuna hobetzea da, motordun mugikortasuna txikituz.

Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa den CRANAK presastutako "Pedalkadak jasangarritasunerantz" erakusketa ibilkaria ere helburu horiekin jaio zen. Esposizio elebidun hau, biztanleria orokorrari zuzenduta dago, desplazamenduak oinez eta bizikletaz egitera bultzatzeko, era horretan motordun mugikortasuna txikituz. Azken batean, erakusketa honekin biztanleria sentsibilizatu nahida, kerik, kutsadurarik eta soinurik gabeko mugikortasun jasangarria lortzeko asmoz.

Horregatik, eta Plazaola(n) bizi proiektuarekin bat egiten duen erakusketa izanik, Lekunberriko geltokitik pasa eta gaur Leitzako Batzar Aretora eramango da, Urriaren 4tik 10era arte, bertako ordutegia astean zehar 9,00etatik 20,00etara eta asteburuetan 10,00etatik 14,00etara izanik. Bukatzeko Irurtzungo batzar aretora eramango da Urriaren 11tik 17ra bitartean (ordutegia oraingoz zehaztugabe dago).